

EZTABAIDA TALDEAK

Eztabaida-taldeak bost edo sei lagunez osaturik daude. Talde hauen helburua gai bati buruzko iritziak “aurrez aurre” trukatzea, arazo bat konpontzea, erabakiak hartzea edo ikuspuntu desberdinen bidez elkar aberastea da, partaidetzan eta askatasunean oinarritutako giro batean.

Eztabaida taldeek idazkari bat izendatuko dute eztabaidaren ondorioak jasotzeko. Denbora labur batez, taldekideek gai zehatz bat eztabaidatuko dute. Jarraian, idazkariak ideien laburpena egingo du, taldekide guztiek ezagutu ditzaten. Horri esker, taldeak ikuspuntu desberdinen berri izango du, eta gaiari buruzko ondorioak aterako ditu.

Teknika hau oso erabilgarria da talde handietarako; taldekide guztien partaidetza aktiboa bermatzen du, eta erabaki bat hartu aurretik iritzi eta ikuspuntu desberdinak ezagutzea ahalbidetzen du.

Garaigordobil, M. Juegos cooperativos y creativos para grupos de niños de 8 a 10 años. Ediciones Pirámide. Madrid. 2003.